5	Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza.	5	En el caso de que cualquiera de los documentos de una oferta no pueda visualizarse correctamente, se permitirá que, en un plazo máximo de 24 horas desde que se le notifique dicha circunstancia, el licitador presente en formato digital el documento incluido en el fichero erróneo. El documento presentado posteriormente no podrá sufrir ninguna modificación respecto al original incluido en la oferta. Si el Órgano de Contratación comprueba que el documento ha sufrido modificaciones, la oferta del licitador no será tenida en cuenta.
6	Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta Kontratazio Mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko datuak kontsultatzeko.	6	Las proposiciones deberán ajustarse a lo previsto en este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, y su presentación supone, por parte del licitador, la aceptación incondicionada de dichas cláusulas o condiciones, sin salvedad ni reserva alguna, así como la autorización a la Mesa y al Órgano de Contratación para consultar los datos obrantes en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de Euskadi o en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público.

7 Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakar bat baino ezin izango du aurkeztu. Halaber, ezingo du beste lizitatzaile batzuekin batera aldi baterako elkartea eginez proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.		7 Cada licitador no podrá presentar más de una proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurara en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.
8 Euskara edo gazteleran ez den beste hizkuntzaren batetan idatzitako agiri originalei, horietako hizkuntzaren baterako itzulpen ofiziala erantsiko zaie.		8 A la documentación cuyo original esté escrito en idioma distinto del euskara o del castellano, deberá acompañarse traducción oficial a uno de los dos idiomas.
9 Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.		9 Sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación vigente en materia de acceso a la información pública y de las disposiciones de la LCSP relativas a la publicidad de la adjudicación y a la información que debe darse a los candidatos y a los licitadores, estos podrán designar, como confidencial, parte de la información facilitada por ellos al formular las ofertas, en especial la relativa a secretos técnicos o comerciales y a los aspectos confidenciales. El Ayuntamiento no podrá divulgar esta información sin consentimiento del respectivo licitador.
18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA		**18. FORMA DE PRESENTACIÓN DE OFERTAS**
1 Lizitatzaileek **HIRU GUTUN-AZAL** elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, klausula honetan adierazitako edukia izan beharko du bakoitzak.		1 Los licitadores deberán presentar **TRES SOBRES** electrónicos, firmados por el licitador o persona que lo represente, y con el contenido que, para cada uno de ellos, se especifica en esta cláusula.
Gutun-azalen izenak ondokoak dira:		La denominación de los sobres es la siguiente:
— «A» gutun-azala: Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena **— «B» gutun-azala: Proposamen teknikoa** **— «C» gutun-azala: Proposamen ekonomikoa**		**—Sobre «A»: Capacidad y solvencia para contratar** **—Sobre «B»: Proposición técnica** **—Sobre «C»: Proposición económica**
Gutun-azal bakoitzean sartu behar diren agiriek originalak edo kopia eskuetsiak izan behar dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.		Los documentos a incluir en cada sobre deberán ser originales o copias autentificadas, conforme a la Legislación en vigor.
Gutun-azal bakoitzean agiri hauek sartu behar dira, zenbakiz zerrendatuta:		Dentro de cada sobre, se incluirán los siguientes documentos así como una relación numerada de los mismos:

ZESTOAKO UDALA

«A» GUTUN-AZALA KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA		SOBRE «A» CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR
1.- Lizitatzaileak ARDURAPEKO AITORPENA aurkezteko modu izango ditu: Ardurapeko aitorpena beteta (I. Eranskineko eredua jarraituz edo EUROPAR BATASUNEKO KONTRATAZIOKO AGIRI BAKARRA (EKAB) aurkeztuta.		1.- El licitador tiene dos opciones para presentar la DECLARACIÓN RESPONSABLE: Cumplimentando una declaración responsable (siguiendo el modelo del Anexo I) o presentando el DOCUMENTO EUROPEO ÚNICO DE CONTRATACIÓN (DEUC).
1.1.- Lizitatzailearen ARDURAPEKO AITORPENA, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazten duena (eredu gisa I. Eranskina). 2017ko SPKL 140. eta 141. artikuluak jarraituz ardurapeko aitorpena, plegu hauetan emandako ereduaren arabera egin beharko da, adierazpen hori EUROPAKO KONTRATAZIO-AGIRI BAKARRAREN (EKAB), 2016/7 zenbakidun Exekuzioko Erreglamenduan jasotakoarekin bat, formularioaren arabera egin eta sinatu beharko da, nork sinatu duen zehaztuta. Adierazpenean lizitatzaileak honako hauek azaldu behar ditu:		1.1.- Una DECLARACIÓN RESPONSABLE del licitador indicando que cumple las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración (se adjunta modelo como Anexo I), . De conformidad con lo previsto en los artículos 140 y 141 LCSP 2017,la declaración responsable deberá ajustarse al modelo facilitado en el presente pliego, el cual se corresponde con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación -DEUC- establecido por el Reglamento de Ejecución (UE) numero 2016/7. La declaración deberá estar firmada y con la correspondiente identificación, en la que el licitador ponga de manifiesto:
- Sozietatea baliozki eratuta dagoela; daukan helburu soziala kontuan hartuta, lizitazioan parte har dezakeela; eta adierazpena sinatu duenak proposamena aurkezteko eta sozietatearen izenean aritzeko eskumena duela.		- Que la sociedad está válidamente constituida y que conforme a su objeto social puede presentarse a la licitación, así como que el firmante de la declaración ostenta la debida representación para la presentación de la proposición y de aquella.
- Sailkatua dagoela edo, hala badagokio, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, agiriak Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera ezarritako moduan.		- Que cuenta con la correspondiente clasificación, en su caso, o que cumple los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional exigidos, en las condiciones que establezca el pliego de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación.
- Ez duela bere kasa eta ezta hedaduraz ere kontratatzeko debekurik, 2017ko SPKLko 71.3 artikuluaren arabera.		- Que no está incurso en prohibición de contratar por sí misma ni por extensión como consecuencia de la aplicación del artículo 71.3 de la LCSP 2017.
- Jakinarazpenak jasotzeko posta elektronikoko helbide bat. Kontratazio-organoak jakinarazpenak helbide horretara bidaltzea erabakitzen duenean.		- La designación de una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones en los casos en que el órgano de contratación haya optado por realizar las notificaciones a través de la misma.

- Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzea aukeratzen badu, 2017ko SPKLko 75. artikuluari jarraikiz, enpresa horiek erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu behar dute, horrelakoetan jaso behar den informazio guztiarekin, Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera.		- Cuando el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la LCSP 2017, cada una de ellas deberá presentar una declaración responsable en la que figure la información pertinente para estos casos con arreglo al formulario normalizado del documento europeo único de contratación.
- Enpresak beste erakunde batzuen ahalmena erabiltzen badu, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu behar du, ahalmen hori erabili ahal izango duela egiaztatzeko.		- Cuando la empresa recurra a las capacidades de otras entidades, deberá presentar compromiso por escrito de dichas entidades para demostrar que va a disponer de tales recursos.
- Enpresaburu batek baino gehiagok aldi baterako elkarte moduan lehiatzen badute, enpresek erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu behar dute, horrelakoetan jaso behar den informazio guztiarekin, Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera. Horri aldi baterako elkartea eratzeko enpresaburuen konpromisoa gehitu behar zaio.		- En todos los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación. Adicionalmente se aportará el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios que sean parte de la misma.
- Atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, erantzukizunpeko adierazpenaz gain, beste bat aurkeztu behar dute, non Espainiako maila guztietako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioari men egingo diotela azalduko duten, kontratua dela eta zuzenean edo zeharka sortzen diren intzidentzia guztiak ebazteko eta, hala badagokie, dagokien atzerriko jurisdikzioari uko egiten diotela adieraziko uten.		- Además de la declaración responsable las empresas extranjeras, en los casos en que el contrato vaya a ejecutarse en España, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.
Kontratazio-organoak edo kontratazio mahaiak egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkeztea eska diezaiekete hautagai edo lizitatzaileei, baldin eta adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunaren gaineko arrazoizko zalantzak badituzte, prozedura egoki gauzatzeko ezinbestekoa bada eta, betiere, kontratua esleitu baino lehen.		El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a los candidatos o licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.

Dena den, enpresaburuak Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda badaude edo Europar Batasuneko estatu-kideren baten datu-base nazionalen batean ageri badira (adibidez: enpresaren espediente birtuala, agiriak gordetzeko sistema elektroniko bat eta aurrez sailkatzeko sistema bat), eta datu horiek aipaturiko organoak doan eskuratzeko modukoak badira, ez dute erregistro eta datu-base horietan jasotako datuen egiaztagiri edo frogagiririk zertan aurkeztu.		No obstante, cuando el empresario esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares.
Aurreko ataletan aipaturiko ahalmenari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko baldintzak bete behar dira hala eskaintza aurkezteko epea amaitzen denean nola kontratua burutzen denean.		Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.
Edozein kasutan ere, kontratazio-organoak, prozedurak bere bidea ondo egitea bermatzeko, esleipen proposamena egin aurretiko edozein unetan lizitatzaileek eska diezaieke esleipenduna izateko eskaturiko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko.		En todo caso, el órgano de contratación, en orden de garantizar el buen fin del procedimiento, podrá recabar, en cualquier momento anterior a la adopción de la propuesta de adjudicación, que los licitadores aporten documentación acreditativa del cumplimiento de las condiciones establecidas para ser adjudicatario del contrato.
Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direla ikusteko une erabakigarria, proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.		El momento decisivo para apreciar la concurrencia de los requisitos de capacidad y solvencia exigidos para contratar con la Administración será el de finalización del plazo de presentación de las proposiciones.

2. Kontratazio publikoari Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24 (EB) Zuzentarauak 59. artikuluan ezartzen duenez, kontratazio organoek “Europa Batasuneko kontratazioko agiri bakarra” izeneko agiria onartuko dute lizitazio prozedura batean parte hartzeko baldintzak bete izanaren aldez aurreko froga gisa, baldintza horiek betetzeari buruzko egiaztagirien ordez; hain zuzen ere, adierazpen formala eta eguneratua aurkeztuko du enpresa interesatuak, non egiaztatzen den eskatutako gaitasun baldintzak betetzen dituela, kontratatzeko debekurik ez izatea barne; kaudimen ekonomiko-finantzarioari eta tekniko edo profesionalari buruzko baldintzak betetzen dituela; eta kontratazio agiriak ezartzen dituen gainerako hautapen eta partaidetza irizpideak ere betetzen dituela.		2. La Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, sobre contratación pública, en su artículo 59 establece que los órganos de contratación aceptarán como prueba preliminar del cumplimiento de los requisitos previos para participar en un procedimiento de licitación el denominado “documento europeo único de contratación”, consistente en una declaración formal y actualizada de la empresa interesada, en sustitución de la documentación acreditativa de estos requisitos, que confirme que la empresa cumple los mismos, y más concretamente; que cuenta con las condiciones de aptitud exigidas, incluida la de no estar incursa en prohibición de contratar, que cumple los requisitos de solvencia económica y financiera, y técnica y profesional, así como los demás criterios de selección y requisitos de participación que establezcan los pliegos de la contratación.
Hori horrela, enpresa lizitatzaileek kontratatzeko gaitasunari eta kaudimenari dagokion dokumentazioaren ordez, EUROPAR BATASUNEKO KONTRATAZIOKO AGIRI BAKARRA (EKAB) aurkezteko aukera izango dute, 2016/7 Araudiak (EB) (aipaturiko zuzentarauaren 59.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko egindakoa) xedaturikoa; dena den, konpromisoa agertu beharko dute dokumentazioa aurkezteko baldin eta esleipendun suertatzen badira edota hura eskatzen bazaio.		Por lo tanto, las empresas licitadoras podrán presentar en sustitución de la documentación relativa a la capacidad y solvencia para contratar, por la presentación del DOCUMENTO EUROPEO ÚNICO DE CONTRATACIÓN (DEUC) establecido por el Reglamento (UE) n.º 2016/7 (dictado en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 59.2 de la mencionada Directiva), comprometiéndose a presentar la documentación en caso de ser propuesta como adjudicataria o de ser requerida para ello.
EKAB-en inprimaki normalizatua ondoko estekan elektronikoki betetzeko moduan dago:		El formulario normalizado del DEUC está disponible para ser rellenado electrónicamente en el siguiente enlace:
https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter		https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter
Jarraitu beharreko pausoak ondokoak dira:		Los pasos a seguir son los siguientes:
1.- Bi klik egin eransten den artxiboan. Artxiboa Interneteko nabigatzaile baten bidez irekitzen da.		1.- Doble click en el archivo adjunto. Se abre el archivo en un navegador de Internet.
2.- Interneteko nabigatzailearen menuan klik egin “gorde honela” aukeran, irekitako orrialdea ordenagailuan gordetzeko		2.- En el menú del navegador de Internet pinchar en “guardar como” para guardar la página abierta en el PC.

3.- Joan esteka honetara https://ec.europa.eu/growth/toolsdatabases/espd/filter eta hautatu “operador económico” eta “importar un DEUC” aukerak.		3.- Ir al enlace https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter y escoger las opciones “operador económico” e “importar un DEUC”.
4.- “Arakatu” aukeratik, “xml” artxiboa inportatu, 2. urratsean gorde dena.		4.- Desde la opción “examinar”, importar el archivo “xml” que se ha guardado siguiendo el paso 2.
Behar bezala bete ondoren, dokumentu hori inprimatu, sinatu eta A gutun-azalean sartu behar da.		Una vez debidamente cumplimentado, dicho documento deberá imprimirse, firmarse e incluirse en el sobre A.
Kontratazio Administratiboko Aholku Batzordeak, 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenaren bidez (2016ko apirilaren 8ko EAO), hainbat jarraibide xedatzen ditu EKAB inprimakia betetzeko		La Junta Consultiva de Contratación Administrativa, mediante Resolución de 6 de abril de 2016, publicada en el BOE n.º 85, de 8 de abril del 2016, establece unas orientaciones para el cumplimiento del formulario normalizado DEUC.
3.- Bestalde, hala badagokio, Aldi Baterako Enpresa-elkarte bat eratzeko konpromisoaren agiria; proposamena aldi baterako enpresa-elkarte batek egiten duenean, elkarte horien guztien legezko ordezkariek sinatutako agiri bat aurkeztu beharko da. Agiri horretan, elkartea sinatzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, elkarte horietako bakoitzak elkarte horretan duen partaidetza eta, esleipendun izanez gero, aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko da, 2017ko SPKLren 69. artikuluaren 3. apartatuan eskatutakoarekin bat etorriz. Era berean, enpresek ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, behar besteko ahalordea izango duena, kontratua iraungi arte kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak betetzeko, eta, nolanahi ere, kobrantza eta ordainketa handiak egiteko ahalorde mankomunatuak emateko aukera ere jaso beharko dute.		3. Por otra parte, en su caso, documento de compromiso de constituir una Unión Temporal de Empresas; cuando la proposición se formule por una unión temporal de empresas, deberá presentarse un documento firmado por los representantes legales de todas ellas en el que se indiquen los nombres y circunstancias de los empresarios que lo suscriban, la participación de cada uno de ellos en la misma, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal de empresas en caso de resultar adjudicatarias, de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del articulo 69 LCSP 2017. Asimismo, las empresas deberán designar a un único representante o apoderado, dotado de poder suficiente, para el cumplimiento de todos los derechos y obligaciones que se deriven del contrato hasta su extinción, incluyendo en todo caso la posibilidad de otorgar poderes mancomunados para realizar grandes cobros y pagos.
«B» GUTUN-AZALA PROPOSAMEN TEKNIKOA		**SOBRE «B» PROPOSICIÓN TÉCNICA**
Balio judizioaren menpe dauden esleitzeko irizpideei dagokien dokumentazioa, ondokoa:		Documentación relativa a los criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio de valor, en concreto:

Agiri honen 15. klausulan adierazitako balio-iritzien araberako irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak jasoko dira gutun-azal honetan:		Este sobre contendrá los siguientes documentos referidos a los criterios cuya valoración depende de un juicio de valor, señalados en la cláusula 15 de este pliego.
Memoria teknikoari buruzko txostenak ezin izango ditu 20 orri DIN A4 formatuan gainditu (bi aldetatik). Horri dagokionez, DIN A3 formatuko orri batek alde batetik, bi aldeetatik DIN A4 formatuko orri baten berdina balio du.		La extensión de la memoria técnica no superará las 20 hojas en formato DIN A4 (por ambas caras). A estos efectos, se considerará que una hoja en formato DIN A3 por una cara equivale a una hoja en formato DIN A4 por las dos caras.
Lizitatzaileek aurkezturiko memoriak aipatu orri kopurua gainditzen badu, memoria teknikoari dagokion balioespen irizpidean 0 punturekin balioetsiko da.		En el caso de que la Memoria presentada supere el número de páginas señalado, el criterio de valoración correspondiente a la Memoria técnica será valorado con 0 puntos.
Kasu batean ere ez dira sartu behar gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa edo era automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagokien beste edozein datu eta C gutun-azalean sartu behar diren datuak.		En ningún caso deben incluirse en el presente sobre la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios cuantificables de forma automática y que deberán incluirse en el sobre C.
Datu horietako edozein sartuz gero B gutunazalean, lizitatzailea prozedura honetatik at geratuko da eta ez da C gutun-azala irekiko.		La inclusión de cualquiera de dichos datos en el sobre B supondrá la exclusión de la empresa licitadora del presente procedimiento y no se procederá a la apertura del sobre C.
«C» GUTUN-AZALA PROPOSAMEN EKONOMIKOA		**SOBRE «C» PROPOSICIÓN ECONÓMICA**
Era automatikoan zenbatu daitezkeen esleitzeko irizpideei buruzko dokumentazioa. Zehazki:		Documentación relativa a los criterios de adjudicación cuantificables de forma automática, en concreto:
• II. Eranskinean jasotako proposamen ekonomikoaren ereduaren arabera.		• **Proposición económica ajustada al modelo del Anexo II.**
Eskaintza ekonomikoa karaktere argiekin edo makinaz idatzita aurkeztu behar da. Beraz, toki-erakundeak eskaintza aintzat hartzeko oinarrizkotzat jotzen duen edozer argi eta garbi ulertzeko hutsik, akatsik edo ezabaketarik badu, eskaintza ez da onartuko.		La oferta económica se presentará en caracteres claros o escrita a máquina, de modo que serán excluidas aquéllas que tengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer, claramente, lo que la Entidad Local estime fundamental para considerar la oferta.
BEZa ordaintzetik salbuetsita dauden enpresa lehiatzaileek berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute zerga horrekiko egoera horretan daudela adierazteko.		Las empresas licitadoras exentas de IVA deberán presentar una declaración expresa indicando que se encuentran en esa situación respecto a dicho impuesto.

19. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA.		**19. APERTURA Y PROCESAMIENTO DE LA DOCUMENTACIÓN PRESENTADA, SELECCIÓN DE EMPRESAS Y VALORACIÓN DE OFERTAS.**
Proposamenak aurkezteko epea iragan ondoren, Kontratazio mahaiak lizitatzaileek A gutun-azalean aurkeztutako dokumentazio orokorra kalifikatuko du, publikoa izango ez den bilkuran, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten dena jarraiki.		Una vez vencido el plazo de presentación de las proposiciones, la Mesa de Contratación procederá a la calificación de la documentación general presentada por los licitadores en el sobre A, en sesión cerrada al público, procediendo para ello conforme al artículo 81 y siguientes del Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, regulador del Reglamento General de la Ley de Contratos del Sector Público.
Kontratazio Mahaiak ondokoa egiaztatuko du: lizitatzaileek A kartazalean aurkeztu dituzten ardurapeko aitorpenak behar den moduan izenpetuta daudela eta formaren ikuspegitik eta ikuspegi materialetik ere, legez eta araudiz aplikagarri diren arauek galdatutakoa ere betetzen dutela.		La Mesa de Contratación comprobará que las declaraciones responsables presentadas por los licitadores dentro del sobre A, están válidamente firmadas y cumplen desde el punto de vista formal y también material, con lo exigido por las normas legales y reglamentarias que son de aplicación.
Kontratazio mahaiak aurkeztutako ardurapeko aitorpenetan hutsegite materialak daudela ikusten badu, posta elektronikoa erabiliz jakinaraziko die interesatuei, eta 3 lanegun baino gehiagokoa izango ez den epea emango du, lizitatzaileek akatsak zuzen ditzaten. Dokumentazioak zuzendu ezin daitezkeen akats nabarmenak edo hutsegite materialak badituzte, proposamena baztertu egingo da.		Si la Mesa de Contratación observare defectos materiales en las declaraciones responsables presentadas, lo comunicará por correo electrónico a los interesados, concediendo un plazo no superior a 3 días hábiles para que subsanen el error. Si la documentación contiene defectos sustanciales o deficiencias materiales no subsanables, se rechazará la proposición.
Kontratazio-mahaiak, duten dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, egokituz gero, aurkeztutako dokumentazioan atzemandako akatsak edo hutsegiteak zuzendu ondoren, hautapen-irizpideak betetzen dituzten enpresak zein diren zehaztuko ditu, eta berariaz esango du lizitazioan zein onartu diren, eta zein eta baztertzearen arrazoiak.		La Mesa de Contratación, una vez calificada la documentación, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones de la documentación presentada, procederá a determinar las empresas que se ajusten a los criterios de selección, con pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación y los rechazados de la misma, así como sobre las causas de rechazo.
Eskatutako agiriren bat ez aurkezteak edo eskatu ez bezala aurkezteak berekin ekarriko du Mahaiak behin betiko ez onartzea.		La no presentación de alguno de los documentos exigidos o su presentación en forma distinta a la requerida dará lugar a la no admisión definitiva por la Mesa.
Proposamenak ebaluatzean, plegu honetako 15. klausulan azaldutako esleipen-irizpideak kontuan hartuko dira.		A la hora de evaluar las ofertas, se tendrán en cuenta los criterios de adjudicación recogidos en la clausula 15 de este pliego.

Horretarako, B gutun-azalak (proposamen teknikoak) irekiko da, horiek balioetsiko dituen teknikariari igorriko zaizkio. Horrek balorazio-txostena, proposamen ekonomikoak jendaurrean ireki aurretik bidali beharko du.		Para ello, se abriran los sobres B (proposición técnica), se remitirá a la persona técnica encargada de realizar la valoración, que deberá devolver el informe de valoración antes de la apertura pública de la proposición económica.
Azkenik, Kontratazio-mahaiak Kontratugilearen Profilean eta onartutako lizitatzaileei bidalitako komunikazioan adierazitako leku, egun eta orduan "C" gutun-azala irekiko du jendaurrean; hau da, proposamen ekonomikoaren inguruko dokumentazioa daukana. Proposamen ekonomikoak irakurri ondoren, mahaiak haien puntuazioa egingo du, plegu honetan esleitzeko adierazitako irizpidearen bidez.		Finalmente, la Mesa de Contratación abrirá el sobre "C", es decir, el sobre que contiene la documentación sobre la proposición económica, en acto público desarrollado en el lugar, día y hora indicados en el Perfil del Contratante y en la comunicación que se curse a las empresas licitadoras admitidas. La Mesa puntuará las proposiciones económicas una vez las haya leído, según los criterios de valoración indicados en este pliego.
Ez dira onartuko proposamenak:		No se aceptarán aquellas proposiciones que:
• Administrazioak behartuta jakin beharreko datuak ikustea eragozten duten kontraesanak, gabeziak, akatsak edo zirriborroak badituzte. • Aztertua eta onartu izan den dokumentazioarekin bat ez badatoz. • Lizitazioaren gehienezkoa gainditzen badute. • Errematearen zenbatekoan akats nabarmena baldin badute. • Baldintza agiri honen II. Eranskinean ageri den proposamen eredutik asko • aldentzen badira.		• Tengan contradicciones, omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta. • Aquéllas que carezcan de concordancia con la documentación examinada y admitida. • Excedan del tipo máximo de licitación. • Comporten error manifiesto en el importe del remate. • Las que varíen sustancialmente el modelo de proposición establecido que figura como Anexo II a este Pliego.
Txosten teknikoak ikusita, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari esleitzeko proposamena luzatuko dio. Esleipen-irizpideak aurkeztu diren proposamenetan aplikatzearen ondorioz lortutako emaitza, akta, esleipen-proposamenarekin batera eskuratutako dokumentazioa eta bidezkotzat jotako oharpenak helaraziko dizkio Kontratazio-mahaiak Kontratazio-organoari.		Vistos los informes técnicos, la Mesa de Contratación hará llegar al Órgano de Contratación el resultado de aplicar los criterios de valoración a las proposiciones presentadas, el acta, la documentación recabada junto con la propuesta de adjudicación y todas las observaciones que se consideren oportunas.
Kontratazio-organoak bi erabaki hauetako bat hartzeko ahalmena izango du: kontratua kalitate prezio erlazio hoberenari adjudikatzea; edo hutsik, esleipenik gabe utz dezake lizitazioa, betiere erabakia esleipenerako irizpide horien arabera arrazoituta.		El Órgano de Contratación podrá decidir entre estas dos opciones: adjudicar el contrato a la mejor propuesta relación calidad-precio; o declarar desierta la licitación, sin adjudicar, justificando siempre su decisión en base a los criterios mencionados.

Esleipen-proposamenak ez du administrazioarekiko inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu esleitzen kontratua egindako proposamenaren arabera, erabakia arrazoitu beharko du.		La propuesta de adjudicación no supondrá ningún derecho del licitador propuesto ante la Administración. No obstante, si el órgano de contratación no adjudicara el contrato en base a la propuesta realizada, deberá justificar su decisión.
Ez da bidezkoa izango kalitate prezio erlazioan proposamen hoberena aurkezten duenari adjudikatzea, baldin eta, kontratazio-organoak ondo oinarritutako arrazoiak baditu pentsatzeko proposamena ezingo dela bete, ohiz kanpoko edo neurriz gaineko balioak jasotzen dituelako.		No procederá la adjudicación al licitador que realice la mejor propuesta relación calidad-precio si el órgano de contratación tuviera razones fundadas para considerar que la propuesta no se podrá ejecutar por contener valores anormales o desproporcionados.
Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 85. artikuluan araututako kasuetan dauden eskaintzez esango da ohiz kanpoko edo neurriz gaineko balioak dituztela.		Se considerarán ofertas con valores anormales o desproporcionados aquellos casos incluidos en los supuestos regulados por el artículo 85 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
Neurriz kanpokoa edo ezohikoa dela jo daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, entzunaldia emango zaio hura aurkeztu duen lizitatzaileari, eskaintzaren balorazioa azal dezan eta haren baldintzak zehatz ditzan, bereziki, ondorengo gaiei dagokienez: kontratuaren exekuzio prozesuak ahalbidetzen duen aurreztea, onartutako irtenbide teknikoak eta prestazioa betetzeko dituen aldeko aparteko baldintzak, proposatutako prestazioen originaltasuna, prestazioa gauzatuko den lekuan enpleguaren eta lan baldintzen babesari buruz indarrean dauden xedapenak errespetatzea, edo Estatuaren aldetik laguntzaren bat jasotzeko aukera.		Cuando se identifique una proposición que pueda ser considerada desproporcionada o anormal, se le dará audiencia a la empresa licitadora que haya presentado para que justifique la valoración de la oferta y precise las condiciones de la misma, en particular en lo que se refiere al ahorro que permita el procedimiento de ejecución del contrato, las soluciones técnicas adoptadas y las condiciones excepcionalmente favorables de que disponga para ejecutar la prestación, la originalidad de las prestaciones propuestas, el respeto de las disposiciones relativas a la protección del empleo y las condiciones de trabajo vigentes en el lugar en que se vaya a realizar la prestación, o la posible obtención de una ayuda del Estado.
Lizitatzaileak, haren eskaintza anormalki baxutzat jotzeko arrastoak badaude, argudio zurigarria aurkez dezake, non ohartaraziko duen erabaki duela etekin industrial txikiagoa eskuratzea, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuari esleitutakoa baino.		El licitador, en el caso de que se hayan apreciado indicios que permitan considerar su oferta como anormalmente baja, podrá presentar argumentación justificativa en la que advierta su opción de obtener un menor beneficio industrial respecto al consignado en el presupuesto base de licitación.
Ez-ohiko edo neurriz kanpoko balioak direla-eta proposamenak ez direla beteko uste izateko parametro objektibotzat hartuko da indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan lanbide kategoria bakoitzeko agertzen diren gutxieneko soldaten kostuak baino prezio txikiagoa adieraztea.		Se considera un parámetro objetivo para apreciar que las proposiciones no pueden ser cumplidas como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados, la indicación de un precio inferior a los costes salariales mínimos por categoría profesional, según el Convenio Colectivo vigente.

Lizitatzaileak emandako azalpenak eta aurreko paragrafoan aipatutako txostenak ikusirik, kontratazio organoak uste badu ezohiko edo neurriz kanpoko balioak direla-eta eskaintza hori bete-ezina dela, orduan, eskaintza sailkapenetik kanpo utziko du eta esleipena Administrazioaren iritziz ongi gauzatuko diren eta ezohikoak edo neurriz kanpokoak ez diren proposamenen artean, sailkapen ordenari jarraituz, kalitate prezio erlazioan onena den hurrengo proposamenari egingo dio.		Si el órgano de contratación, considerando la justificación efectuada por los licitadores y los oportunos informes técnicos, estimase que la oferta no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados, las excluirá de la clasificación y acordará la adjudicación a favor de la mejor propuesta calidad-precio, de acuerdo con el orden en que hayan sido clasificadas, que se estime pueda ser cumplida a satisfacción de la Administración y que no sea considerada anormal o desproporcionada.
20. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZATZEA		**20. ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN**
Kontratazio-organoak eskaintzarik onena egiten duen lizitatzaileari adjudikazioa ematea ebatziko du, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz.		El Órgano de Contratación acordará la adjudicación del contrato al licitador que presente la mejor oferta, dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación requerida al primer clasificado, en aplicación de lo preceptuado por el artículo 150.3 de la LCSP.
Lizitatzaile guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta Euskadiko kontratazioko plataforman dagoen erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.		La adjudicación será notificada a todos los licitadores y se publicará en el perfil de contratante de esta Institución alojado en la plataforma de contratación.
Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.		El contrato se perfeccionará mediante su formalización en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, y dicho documento constituirá título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, la empresa contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, en cuyo caso correrán de su cargo los correspondientes gastos.

Baldin eta SPKLren 44.1 artikuluaren arabera kontratazio-arloan errekurtso berezia izan dezakeen kontratua bada, ezin izango da formalizatu harik eta hamabost egun balioduneko epea igaro arte, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren berri emateko jakinarazpena igortzen zaienetik, eta, epe horretan, errekurtso hori jarri ahal izango dute. Errekurtsoa jarriz gero, kontratazio-prozeduraren izapidetzea eten egingo da errekurtsoa ebatzi arte; SPKLren 44 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz bideratuko da errekurtsoa.		Si se trata de un contrato ante el que pueda interponerse recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 44.1 de la LCSP, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos, plazo durante el cual puede interponerse el citado recurso, en cuyo caso se suspenderá la tramitación del procedimiento de contratación hasta la resolución del recurso, que se desarrollará según lo previsto en el artículo 44 y siguientes de la citada Ley.
Hamabost eguneko epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, adjudikaziodunari eskatuko zaio kontratua formaliza dezala gehienez ere bost eguneko epean, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.		Transcurridos los quince días señalados sin que se interponga recurso alguno, se requerirá al adjudicatario para que formalice el contrato en un plazo no superior a cinco días naturales a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento.
SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta.		De acuerdo con lo previsto en el artículo 152 de la LCSP, el Órgano de Contratación, por razones de interés público debidamente justificadas, podrá adoptar la decisión de no adjudicar o celebrar el
21. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA		**21. DECISIÓN DE NO CELEBRAR EL CONTRATO Y DESISTIMIENTO DEL PROCEDIMIENTO.**
SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta.		De acuerdo con lo previsto en el artículo 152 de la LCSP, el Órgano de Contratación, por razones de interés público debidamente justificadas, podrá adoptar la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato.
Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.		También podrá desistir del procedimiento cuando aprecie una infracción no subsanable de las normas de preparación del contrato o de las normas reguladoras del procedimiento de adjudicación. Tanto la decisión de no celebrar el contrato como el desistimiento del procedimiento deberán llevarse a cabo antes de la formalización del contrato, y de acuerdo con los requisitos establecidos en el referido artículo.

ZESTOAKO UDALA

III. KONTRATUA BURUTZEA		III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO
22. KONTRATUAREN ARDURADUNA		**22. RESPONSABLE DEL CONTRATO**
Kontratazioko organoak, udal teknikari bat izendatuko du, eta kontratua gauzatzeaz arduratzeko, SPKLaren 62. artikuluan aurreikusitako funtzioekin.		El órgano de contratación designará un técnico municipal responsable de la ejecución del contrato, con las funciones que se prevén en el artículo 62 de la LCSP.
23. KONTRATUA BURUTZEA		**23. KONTRATUA BURUTZEA**
1 Kontratua kontratistaren kontura bete beharko da.		1 La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa contratista.
2 Agiri honetan jasotzen diren baldintzei, Agiri teknikoari, esleipendunak bere eskaintzan egiten duen proposamenari, sinatutako kontratuari eta espedienteari erantsitako espezifikazio teknikoei lotuta betearaziko da kontratua, eta hura interpretatzeko Udalak kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.		2 El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego, en el pliego técnico, en la propuesta que realice la empresa adjudicataria en su oferta, en el contrato firmado y a las especificaciones técnicas unidas al expediente, de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diese al contratista el Ayuntamiento.
3 Kontratistak bere langile propioekin eman beharko du zerbitzua eta horiek, kontratuaren helburua betetzeko beharrezko titulazioa izan beharko dute.		3 La empresa contratista deberá prestar el servicio con personal propio, que deberá poseer la capacitación profesional necesario para el objeto del contrato.
4 Kontratistak hitzartutako kalitatearekin eta maiztasunarekin eman beharko du zerbitzua bai eta kontratatu den zerbitzua eman edozein dela erakunde esleipendunaren barne eta kanpoko egoera, adibidez, lan arazoak eta zerbitzuaren jarduera normalean eragina izan dezakeen beste edonolako egoera.		4. La empresa contratista deberá prestar el servicio con la continuidad y calidad convenida, así como realizar el servicio contratado con independencia de las circunstancias internas o externas de la entidad adjudicataria, tales como conflictos laborales y cualquier otra que pueda afectar al desarrollo normal del servicio.
5 Kontratista, burutzen dituen lanen, prestazioen eta eskainitako zerbitzuen arduradun izango da, baita administrazioarentzako edo hirugarrenentzako kontratua modu desegokian gauzatzearena, egon litezkeen akatsengatik edo erabilitako metodo desegokiengatik eratorritako ondorioen arduradun izanik. Ardura ez zaio berari egotziko antzemandako bizioak administrazioaren agindu zuzen baten edo hark ezarritako baldintzatatik ondoriotutakoak direnean.		5. La empresa contratista será responsable de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.Sólo quedará exento de responsabilidad cuando los vicios que se observen, sean consecuencia directa de una orden de la Administración o de las condiciones impuestas por ella.

6. Enpresa esleipendunak, kontratatutako zerbitzuei buruz ezagut ditzakeen datu guztiak isilpekoak direla ulertzen da, eta horien identitatea eta sekretua gorde beharko ditu. Sekretu profesionalaren betebeharra hausteagatik sortutako kalte-galerengatik eragindako pertsonei eta Udalari kalte-ordain bat ordaindu beharko dio esleipendunak.		6 Todos aquellos datos que pudiera conocer la empresa adjudicataria en relación con los servicios contratados se entienden confidenciales, debiendo guardar la identidad y el secreto de los mismos. La empresa adjudicataria deberá indemnizar al Ayuntamiento y a las personas afectadas por los daños y perjuicios causados por la contravención del deber de sigilo profesional.
Enpresa esleipendunak kontratua betetzeko beharrezko gerta daitezkeen izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatuen erabilpena izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzen duen abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta gaiari buruzko gainontzeko araudiak xedatzen dutenari jarraiki gauzatuko du.		La utilización por la empresa adjudicataria de datos de carácter personal objeto de tratamiento automatizado que pueda resultar precisa para el cumplimiento del contrato, se efectuará con observancia de lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre y demás normativa concordante.
Enpresa esleipendunak ezin izango ditu kontratuagatik lortzen dituen izaera pertsonaleko datu automatizatuak aplikatu edo erabili kontratuan bertan jasotzen diren helburuetarako ez bada; halaber, ezin izango dio inori utzi, gordetzeko bakarrik bada ere.		La empresa adjudicataria no podrá aplicar o utilizar los datos automatizados de carácter personal que obtenga por razón del contrato con fin distinto al que figura en el mismo, ni cederlos, ni siguiera para su conservación a otras personas.
Kontratuaren emakida bete ondoren, erabili diren izaera pertsonaleko datuak Udalari eman beharko zaizkio. Enpresa esleipendunak bereak suntsitu egin beharko ditu, ez bada behintzat Udalaren baimen idatzia jasotzen, etorkizunean egin ditzakeen zerbitzuak kontuan hartuz. Kasu horretan, dagozkion segurtasun neurriekin, bost urtez jaso ahal izango dira.		Una vez cumplida la prestación contractual, los datos de carácter personal tratados deberán ser entregados al Ayuntamiento. La empresa adjudicataria deberá destruir los suyos, salvo que medie autorización escrita del Ayuntamiento motivada por la posibilidad de ulteriores servicios, en cuyo caso se podrán almacenar, con las debidas condiciones de seguridad por un periodo de 5 añoS.
7. Esleipendunak, kontratua egoki garatu eta bete dadin beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, laneko bileratara edo informazio-bileratara joan, eta horrek ez dio ordainketa osagarri bat jasotzeko inolako eskubiderik emango. Betebehar hori bermerako epea amaitzen den arte mantenduko da.		7 La empresa adjudicataria deberá prestar, sin derecho de pago suplementario, los servicios necesarios para el correcto desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como asistencia a reuniones de trabajo o informativas. Esta obligación se mantendrá hasta la finalización del periodo de garantía.

8. Zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratiboak lortzea, beti esleipendunaren kontura joango da, eta hark bere izenean eskatu beharko ditu.		8 La obtención de cuantas licencias o autorizaciones administrativas sean precisas para la prestación del servicio, correrá siempre a cargo de la empresa adjudicataria, quien deberá solicitarlas en su nombre.
9. Udalak, kontratu-emakidaren nahikoa jarraipen lortzearren, enpresa esleipen-dunaren arduradunekin koordinazioko bilerak eduki ahal izango ditu egindako lanaren garapena ezagutzeko.		9 El Ayuntamiento, a fin de lograr el suficiente seguimiento de la prestación del servicio podrá mantener reuniones de coordinación con los responsables de la empresa adjudicataria para conocer la evolución del trabajo desarrollado.
10. Esleipendunak Emakumeen eta Gizonezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete beharrekoa izango du. Harek, besteen artean, edozein modutako bereizketa, zuzena edo zeharkakoa.		10 La empresa adjudicataria está obligado a cumplir la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres, por la que, entre otras cuestiones, se prohíbe toda discriminación directa o indirecta basada en el sexo de las personas.
11 Esleipenaren xedea den prestazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntz ofizialetan emango dela bermatuko du, udalerrian indarrean dagoen euskararen erabilera normalizatzeko planean jasota dauden irizpideen arabera, eta baita kontratu honi dagozkion baldintza teknikoen agirian jasotakoen arabera ere.		11 Garantizar la prestación objeto de adjudicación en las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, de acuerdo a los criterios recogidos en el plan de uso y normalización del euskera vigente en el municipio, así como a los recogidos en los pliegos técnicos relativos al presente contrato.
Era berean eta irizpide horiek jarraituz, euskararen erabilera bermatu beharko du herritarrei zuzendutako inprimaki, ohar edo jakinarazpenetan.		Del mismo modo, y siguiendo dichos criterios, deberá garantizar el uso del euskera en los impresos, avisos y comunicaciones dirigidos a la ciudadanía.
12 Esleipendunak instalazioaren autobabesa plana ezagutu eta bete behar du. Horretarako, udalak dokumentua emango dio.		12 La empresa adjudicataria deberá conocer y cumplir el plan de autoprotección de la instalación que le será facilitado por el Ayuntamiento.
24. KONTRATISTAREN LAN-EGINKIZUNAK		**24. OBLIGACIONES LABOLARES DE LA EMPRESA CONTRATISTA**
1 Esleipendunak, zerbitzua era egokian emateko behar diren giza baliabideak izango beharko ditu.		1 La empresa adjudicataria dispondrá de los medios humanos necesarios para una correcta prestación del servicio.

2	Kontratua esleitzeak ez du esan nahiko esleipendunaren eskura Udalaren baliabide materialak, antolakuntzakoak, administratiboak eta giza mailako jarriko direnik (agiri honetan edo baldintza teknikoen agirian espresuki xedatutakoa salbu), hauek Udalaren esku gelditzen baitira.		2 La adjudicación del contrato no supondrá la puesta a disposición de la empresa adjudicataria de los medios materiales, organizativos, administrativos y humanos del Ayuntamiento (a salvo de lo expresamente previsto en el presente documento o en el pliego de cláusulas técnicas particulares), y que quedan reservados a éste.
3	Kontratuaren xedeko langile zerbitzariek enpresa kontratistaren antolakuntza egituraren menpe burutuko ditu beti lanak, eta hark helaraziko dizkiete beren lana modu egokian burutzeko beharrezkoak diren elementu materialak.		3 El personal asistente objeto del contrato desarrollará sus funciones dependiendo siempre de la estructura organizativa de la empresa contratista, quien les dotará de los elementos materiales precisos para el correcto desempeño de su trabajo.
4	Kontratistak nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak izango ditu eta lan arloan, bereziki aplikagarri den Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoak, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu. Udalak ez du inongo erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.		4 La empresa contratista tendrá todos los derechos y obligaciones inherentes a su calidad de patrón y estará obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, especialmente las fijadas en el Convenio colectivo aplicable, de Seguridad Social y de prevención de riesgos laborales, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.
5	Udalak kontratua amaitu aurretik edo amaitutakoan zerbitzua berreskuratzea erabakiko balu, Udala ez da esleipendunak kontratatutako langileez arduratuko, ezta kontratutik edo kontratuaren amaieratik sortutako inolako ordainketa edo kalte- ordainen erantzule ere egingo.		5 En el caso de que el Ayuntamiento acordara el rescate del servicio, antes de o a la finalización del contrato, el Ayuntamiento no se hará cargo del personal contratado por la empresa adjudicataria, ni se responsabilizará del abono de indemnización alguna que pudiera derivarse del contrato o de su finalización.

Kontratua burutzeko baldintza bereziak Kontratua burutzeko honako hauek dira baldintza bereziak: Lan-arloko legeriari, Gizarte Segurantzari eta Hitzarmen Kolektiboei dagokienean, indarrean dauden xedapen guztiak betetzea, baita Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 legeak eta hori garatzen duten Errege Dekretuek xedatzen dutena ere (bereziki langileentzako formazio-ekintzei eta norbera babesteko ekipoen horniketari dagokionean), baita zerga gaietan ere. Nolanahi ere, haiek ez betetzeak dakarren edozein erantzukizunetik erabat libre gelditzen da Udalbatza.		**Condiciones especiales de ejecución del contrato** Son condiciones especiales de ejecución las siguientes: Cumplir cuantas disposiciones se hallen vigentes en materia de Legislación Laboral, Seguridad Social, Convenios Colectivos, y todo lo comprendido en la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales y en los Reales Decretos que la desarrollan (especialmente en lo relativo a acciones formativas para el personal y dotación de equipos de protección individual), así como en materia tributaria, quedando la Corporación Municipal totalmente liberada de cualquiera responsabilidad que pudiera derivarse del incumplimiento de aquéllas.
Betebehar hauek kontratuaren baldintza berezitzat jotzen dira, eta ez badira betetzen, larritzat joko da eta honek kontratua suntsiaraztea ekarriko du, SPKLaren 211.f) artikuluari jarraiki.		**Estas obligaciones son consideradas como especiales del contrato y su incumplimiento será considerado como grave y conllevará la resolución del contrato prevista en el artículo 211.f) de la LCSP.**
25. KONTRATUA EXEKUTATZEKO BESTE BALDINTZA BEREZIAK		**25. OTRAS CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratu hau exekutatzeko ondorengo exekuzio baldintza bereziak eskatuko dira:		Para la ejecución de este contrato se exigirán las siguientes condiciones especiales de ejecución:
Gizarte arlokoak: Enpresa esleipendunak lan arloko sexu jazarpen kasuen aurrean protokolo bat izango du.		De carácter social: La empresa adjudicataria dispondrá de un protocolo ante situaciones de acoso sexual en el ámbito laboral.
Kontratistak bermatuko du, kontratua gauzatzean, dokumentazioa, publizitatea, irudia edo materialak sexismorik gabe erabiltzen direla, emakumeen aurkako bereizkeria eta estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihesten dela eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dela.		La empresa contratista garantizará que en la ejecución del contrato la documentación, publicidad, imagen o materiales se realice un uso no sexista le lenguaje, y se evite cualquier imagen discriminatoria de las mujeres y estereotipos sexistas y se fomente una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.

Kontratistak Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu.		La empresa contratista deberá cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, del Parlamento Vasco, para la igualdad de Mujeres y Hombres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
250 langile baino gehiago dituen enpresa kontratistak justifikatu beharko du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan bat duela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako edukiarekin.		La empresa contratista con más de 250 trabajadores, deberán justificar que dispone de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres con el contenido previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de Hombres y Mujeres.
Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegurako sarbidean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, kontratua azkentzean, ordainsarietan, lan-kalitatean eta -egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.		En la ejecución del contrato, la empresa contratista o subcontratista garantizará la igualdad entre hombres y mujeres en el trato, en el acceso al empleo, clasificación profesional, promoción, permanencia, formación, extinción, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral.
Enpresak eskaintzen duen edozein informazio (memoriak, etab.), pertsonei buruzkoa bada, sexuaren arabera bereizita egongo da.		Cualquier información ofrecida por la empresa (memorias, etc.), y que se refieran a las personas, vendrá desagregada por sexo.
Betebehar hori ez betetzea kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da, eta kontratuaren aurrekontuaren% 10era arteko zigorra ezarriko da.		El incumplimiento de esta obligación se considerará un incumplimiento contractual que dará lugar a la imposición de una penalidad de hasta el 10% del presupuesto del contrato.
Hizkuntza arlokoak Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasunaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, eta lege hau garatzen duten araudiak arautua, eta baita Zestoako Udalaren Euskararen erabilera Plana.		De carácter lingüístico Este contrato se halla sujeto al régimen de oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otras, por el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la CAPV, y por la normativa que la desarrolla, entre otros, el plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Zestoa.

Kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasunaren araubidea, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira, bai ahozko harremanetarako bai idatzietarako: - Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.		Puesto que este contrato se halla sujeto al régimen de oficialidad lingüística, el euskera y el castellano serán lenguas de servicio, tanto a nivel hablado como escrito: - Nn todos los casos se garantizarán los derechos lingüísticos de los ciudadanos y ciudadanas.
Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak, Euskara zerbitzuarekin batera, finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena egingo du, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.		La unidad administrativa promotora del contrato, junto con el Servicio de Euskera, será responsable de hacer un seguimiento del cumplimiento de los requisitos lingüísticos establecidos en él, de modo análogo al seguimiento del resto de condiciones y en los plazos similares, dando cuenta de ello al Servicio de Euskera, quién dará su aprobación o propondrá medidas correctoras.
Baldintza plegu honetan ezartzen diren baldintza guztiek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate SPKLaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.		Todas estas condiciones que se recogen en este Pliego de condiciones constituyen una obligación esencial del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede tener consecuencias idénticas al resto de condiciones, es decir, la aplicación de penalidades o su resolución.
26.ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI ERAGINDKAO KALTEENGATIK		**26. RESPONSABILIDAD DE LA EMPRESA CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratista izango da kontratua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz edo bere beharrak bete ez izanaren ondorioz sor litezkeen kalte-galeren erantzule, SPKLaren 196. artikuluak xedatzen duenaren arabera.		La empresa contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, así como los producidos por incumplimiento de sus obligaciones en los términos de lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP.

Horretarako, esleitu aurretiko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, hamar laneguneko epean, aseguru poliza baten kopia ekarriko du, 300.000,00 euroko gutxieneko berme muga duena, eta baita hura ordaindu izanaren egiaztagiria ere. Aseguru poliza horrek, bere gain hartuko ditu kontratuari berari dagozkion arriskuak, bereziki, izan dezakeen erantzukizun zibilarena beste batzuei sortutako kalteengatik. Kalte horiek, esleitutako enpresaren langilegoak eragindikoak izan daitezke, langile eta agindupeko finkoek, zein aldi baterakoek; erabilitako makinariak edo ekipoak eragindakoak; eta baita, esleipenaren xede den zerbitzua ematean egindako lanen ondorioz sor daitezkeenak ere.		A tal fin aportará, en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el siguiente a aquél en que hubiere recibido el requerimiento previo a la adjudicación, copia de una póliza de seguros, con límite mínimo de garantía de 300.000,00 euros, y justificante del pago de la misma, que cubra los riesgos inherentes al contrato y en especial a la responsabilidad civil en que pueda incurrir por los daños causados a terceras personas y derivados de actos del personal de la empresa adjudicataria, de sus empleados y dependientes permanentes u ocasionales, de la maquinaria y equipo que emplee, así como, a consecuencia de los trabajos realizados durante la prestación del servicio objeto de la adjudicación.
27. KONTRATUA ALDATZEA ETA BERE OREKA EKONOMIKOA MANTENTZEA		**27. MODIFICACIÓN DEL CONTRATO Y MANTENIMIENTO DE SU EQUILIBRIO ECONÓMICO**
1 Herri onurako arrazoiak direla-eta, Udalak kontratua aldatu ahal izango du, behar berriak edo ustekabeko arrazoiak sortzen direnean, eta kontratistak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubidea izango. Era berean, zerbitzua bide onetik joan dadin, egoki irizten dituen aldaketak sartu ahal izango ditu Udalak. Hori guztia, SPKLaren 205 artikuluan ezarritako mugekin.		1 El Ayuntamiento podrá modificar el contrato, por razones de interés público, debido a necesidades nuevas o causas imprevistas, no teniendo derecho la empresa contratista a indemnización alguna. Asimismo, el Ayuntamiento podrá introducir en el contrato cuantas modificaciones estime oportunas para la buena marcha del servicio y, en todo caso, con los límites establecidos en el artículo 205 de la LCSP.
2 Aldaketa horiek kontratuaren finantza-erregimenari eragiten diotenean, Udalak kontratistari konpentsazioa eman beharko dio, kontratua esleitzerakoan oinarrizkotzat joak ziren baldintza ekonomikoen orekari eusteko.		2 Cuando las modificaciones afecten al régimen financiero del contrato, el Ayuntamiento deberá compensar al contratista de manera que se mantenga el equilibrio de los supuestos económicos que fueron considerados como básicos en la adjudicación del contrato.
3 Udalak zerbitzuen garapenari buruz ematen dituen erabakiek ez balute ekonomi arloan eraginik izango, kontratistak ez du horiengatik inolako kalte- ordainetarako eskubiderik izango.		3 En el caso de que los acuerdos que dicte el Ayuntamiento respecto al desarrollo del servicio carezcan de trascendencia económica, la empresa contratista no tendrá derecho a indemnización por razón de los mismos.
4 Oreka ekonomikoa berrezarriko da, dagokion zatiaren alde, SPKLaren 290 artikuluak dioenari jarraiki.		4 Se restablecerá el equilibrio económico del contrato, en beneficio de la parte que corresponda, de conformidad con lo indicado en el artículo 290 de la LCSP.

28. ZERBITZUAK HARTZEA ETA BERME-EPEA.		**28. RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA**
1 Hilabete bateko berme-epea jarriko da, kontratu administratiboa amaitu ondoren.		1 Se establece un plazo de garantía de un mes, una vez finalizado el contrato administrativo.
2 Epe hori amaitzen denean, esleipendunari Udal honetan sartu zuen behin-betiko bermea itzuliko zaio, non eta esleipendunak ez badio Udal honi edo eragina jasandako hirugarrenei kalte-galerarik ordaindu behar izango kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz sortutako kalte edo galerengatik.		2 Transcurrido este plazo, el Ayuntamiento devolverá al adjudicatario la garantía definitiva ingresada en este Ayuntamiento, salvo que la empresa adjudicataria deba indemnizar al Ayuntamiento o terceros afectados de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.
3 Kontratazio-organoak erabakiko du kontratistak emandako prestazioa hura burutzeko eta betetzeko finkatutako preskripzioei lotzen zaion. Horretarako, indarrean dagoen arautegiak xedatzen dituen eskumenak bere esku izango ditu.		3 El órgano de contratación determinará si la prestación realizada por la empresa contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, disponiendo para tal fin de las prerrogativas establecidas en la normativa vigente.
4 Kontratuak dirauen bitartean egin diren lanek akatsak dituztela egiaztatuko balitz, kontrataziorako organoak eskubidea izango du kontratistari horiek zuzendu ditzala erreklamatzeko.		4. Si durante el plazo de vigencia del contrato se acreditase la existencia de vicios o defectos en los trabajos efectuados, el órgano de contratación tendrá derecho a reclamar al contratista la subsanación de los mismos.
29. EPEAK BETETZEA		**29. CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS**
1 Kontratista behartuta dago jarritako bukaerako epea nahiz zatikako epeak betetzera.		1 La empresa contratista está obligado al cumplimiento tanto del plazo final como de los plazos parciales que se hubieran fijado.
2 Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, zatitako epeetan berandutzen bada, eta honek finkatutako epe osoa betetzea eragozpen badu, edo hala gertatuko dela pentsatzeko arrazoiak badaude, hauetako bat aukeratu ahal izango du Administrazioak: batetik, kontratua bertan behera uzten –kasu honetan kontratistak fidantza galduko luke-, edo, bestetik, SPKLaren 192. artikuluak xedatzen dituen zigorrak ezartzea..		2 Si la empresa contratista, por causas imputables al mismo, hubiera incurrido en demora respecto a los plazos parciales, de manera que haga presumir razonablemente la imposibilidad de cumplimiento del plazo total fijado o éste hubiera quedado incumplido, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato con pérdida de la fianza o por la imposición de las penalidades que se establecen en el artículo 192 de la LCSP.

3 Lanak geldiarazi, eten eta bertan behera utziz gero, hitzartutako epean ez egitearekin parekatuko da.		3 La suspensión, interrupción y abandono de la prestación del servicio se equiparará a la falta de realización dentro del plazo convenido.
4 Kontratista berandutu dela jo ahal izateko, ez da beharko Udalaren aldez aurreko interpelazio edo ohartarazpena.		4 La constitución en demora de la empresa contratista no requiere interpelación o intimación previa por parte de la Administración.
5 Zigorrak ordaintzeak ez du baztertzen Udalbatzak izan dezakeen kalteen ondorioko eskubidea ordaintzetik, kontratistari egotz dakizkiokeen atzerapenengatik sortutako kalte-galeren truke.		5 La aplicación del pago de las penalidades no excluye la indemnización a que la Corporación pueda tener derecho por daños y perjuicios ocasionados con motivo de retrasos imputables al contratista.
30. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK		**30. INFRACCIONES Y SANCIONES**
1. Arau-hausteak horrela klasifikatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak.		1. Las infracciones se clasificarán en leves, graves y muy graves.
2. Arau-hauste arinak izango dira : a) Agirian jasotako arau orokorrak eta espezifikoak ez betetzea, arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartzen ez badira. b) Udalak berariaz baimenik eman gabe lanak aldatzea. c) Ezarritako epean, zerbitzua ematerakoan izan diren gorabeherak Udalari ez jakinaraztea. d) Udalaren aginduak ez betetzea.		2. Serán infracciones leves: a) Los incumplimientos de las normas generales y específicas prevista en el Pliego, que no constituyan infracción grave o muy grave. b) Modificación de los trabajos sin autorización expresa del Ayuntamiento. c) Omisión en la notificación al Ayuntamiento de las incidencias que se produzcan en la
3. <u>Arau-hauste larriak izango dira</u>:		3 <u>Serán infracciones graves</u>:
a) Zerbitzua ematerakoan behin eta berriz atzeratzea eta kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzerakoan behin eta berriz irregulartasunak izatea. b) Zerbitzua eskaintzerakoan agiri honetan jasotako baldintzen arabera onartezinak diren irregulartasunak izatea. c) Dokumentazioaren faltsutasuna. d) Kontratuari atxikitako langileak kontratu- emakidaren xede ez den jardueraren batean lanean jartzea. e) Zerbitzuaren aldaketei edo hobekuntzei buruz Udalak emandako aginduak ez betetzea, aldaketa edo hobekuntza horiek Kontratistarentzat gastu gehiago ez dakartzatenean.		a) El retraso reiterado en la prestación del contrato, así como por anomalías reiteradas en la prestación de los servicios objeto de contrato. b) Irregularidades inadmisibles en la prestación de los servicios con arreglo a las condiciones fijadas en el presente pliego. c) La falsedad de la documentación. d) Ocupación del personal adscrito al contrato en tareas distintas a las propias objeto del mismo. e) Incumplimiento de las órdenes municipales sobre modificaciones o mejoras del servicio que no impliquen mayores gastos para el Contratista.

f) Esku hartzeko plana gauzatzeko eskainitako materiala langileen eskura ez jartzea. g) Baldintza Agiri honetan Kontratistari ezarritako betebeharrak ez betetzea dakartzaten horiek guztiak, oso larrien kalifikazioa merezi ez dutenean eta bere izaeragatik, arintzat hartu behar ez direnean. h) Kontratistak zigor arinak eragiten dituzten ekintzak behin eta berriz errepikatzea. Behin eta berriz errepikatzen direla ulertuko da, bi hilabetetan bi aldiz eginez gero.		f) No poner a disposición de los trabajadores el material ofertado para la ejecución del plan de intervención. g) Todas aquellas que implicando un incumplimiento de las obligaciones establecidas para el contratista en el presente Pliego de Condiciones, no merezcan la calificación de muy graves y que por su naturaleza no deban ser comprendidas como leves. h) La reiteración por parte del contratista de actos que den lugar a sanciones leves. Se considera reiterado si tiene lugar dos veces en dos meses.
4 <u>Arau-hauste oso larriak izango dira</u>:		4 <u>Tendrán el carácter de infracciones muy graves</u>:
a) Zerbitzua nabarmen akatsekin edo irregulartasunez ematea, finkatutako baldintzak bete gabe. b) Kontratua osorik edo zati batean ematea, berralokatzea edo eskualdatzea, Udalak berariaz horretarako baimenik eman gabe. c) Kontratistak edo enpresa esleipendunak zerbitzua emateari uztea, hura zilegi egiten duen legezko gorabeherarik izan gabe. d) Zerbitzuan lan egiten duten langileen lan, Segurtasun eta Higiene eta Gizarte Segurantzako betebeharrak ez betetzea.		a) La prestación manifiestamente defectuosa o irregular de los trabajos, con incumplimiento de las condiciones establecidas. b) Cesión, subarriendo o traspaso, total y parcial del contrato, sin autorización expresa del Ayuntamiento. c) La cesación en la prestación del servicio por la empresa contratista o empresa adjudicataria, sin la concurrencia de las circunstancias legales que la hagan legítimo. d) El incumplimiento de las obligaciones laborales, Seguridad e Higiene y de la Seguridad Social con el personal adscrito a
5 <u>Zigorrak</u>		5 <u>Sanciones</u>:
a) Arau-hauste arinak ohartarazpen batekin zigortuko dira beti; hala ere, 300,00 eurora bitarteko isunak ezarri ahal izango dira. b) Arau-hauste larriak 301,00 eurotik 600,00 eurora bitarteko isunekin zigortuko dira. c) Arau-hauste oso larriak 601,00 eurotik 1.500,00 eurora bitarteko isunekin zigortuko dira.		a) Las infracciones leves se sancionarán en todo caso con apercibimiento, pudiendo imponerse multas de hasta 300,00 euros. b) Las infracciones graves serán sancionadas con multas de 301,00 a 600,00 euros. c) Las infracciones muy graves se sancionarán desde 601,00 euros hasta 1.500,00 euros.

Dena den, arau-hauste oso larrien kasuetan, Udalak klausula honetan aurreikusitako zigorrak jartzea edo kontratua amaitzeko dagokion espedientea bideratzea aukeratu ahal izango du.		No obstante, en caso de infracciones muy graves el Ayuntamiento podrá optar entre la imposición de sanciones, según lo previsto en esta cláusula, o el inicio del correspondiente expediente para la resolución del contrato.
Zigorrak ezartzeak ez du kalte-ordainen konpentsazioa baztertuko, hala dagokionean		La imposición de sanciones no excluirá la compensación, en su caso, de daños y perjuicios.
31. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK		**31. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**
1 SPKLaren 211 eta 313 artikuluetan zehazten dira kontratua amaitzeko arrazoiak.		1 Constituyen causas de resolución del contrato las establecidas en los artículos 211 y 313 de la LCSP.
2 Amaitzearen eraginei dagokienean, SPKLaren 213 eta 313 artikuluek arautzen dutena.		2 En cuanto a los efectos de la resolución se estará a lo regulado en los artículos 213 y 313 de la LCSP.
3 Bereziki kontratua amaitzeko arrazoia izango da izaera oso larriko arau-hausteak, aurreko klausulan xedatutakoari jarraiki, baita kontratuaren xedeko prestazioak betetzeko esleipendunaren ezintasun teknikoa.		3 De manera específica constituirán causa de resolución del contrato la comisión de infracciones de carácter muy grave, según lo dispuesto en la cláusula anterior, así como la imposibilidad técnica de la adjudicataria para cumplir las prestaciones objeto del contrato.
32. KONTRATUA UZTEA ETA AZPIKONTRATAZIOA		**32. CESIÓN DEL CONTRATO Y SUBCONTRATACIÓN**
Kontratistak berak egin beharko ditu lanak, eta ezin izango dio utzi beste pertsona bati kontratu guztia edo horren zati bat Udalak aldez aurretik eta espresuki baimendu gabe, eta SPKLaren 214 artikuluak xedatutako baldintzak betez.		La empresa contratista estará obligado a ejecutar los trabajos personalmente, no pudiendo ceder, en todo o en parte, el contrato a otra persona sin la autorización expresa y previa del Ayuntamiento, y con sujeción a las condiciones establecidas por el artículo 214 de la LCSP.
Azpikontratazioari dagokionez, kontratistak hirugarren batzuekin hitzar dezake prestazioaren zati bat egitea, beti ere azpikontratazio horrek ez dakarrenean lehiaren murrizketa eraginkorrik.		En cuanto a la subcontratación, la empresa contratista podrá concertar con terceros la realización parcial de la prestación, sin que en ningún caso la limitación de la misma suponga que se produzca una restricción efectiva de la competencia.

Dena den, azpikontratazioa aurreikusten bada, lizitatzaileek kontratuaren zein atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Horretarako, esleipendunak kontratua esleitu ondoren eta kontratua gauzatu aurretik, idatziz jakinarazi beharko du azpikontratuak egiteko asmoa, prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratista nor izango den zehaztuz, eta, era berean, azpikontratistak kontratua gauzatzeko gaitasuna duela behar bezala justifikatu beharko du SPKLaren 215 artikuluan adierazitakoari jarraiki.		En todo caso, si se prevé la subcontratación, los licitadores en su oferta deberán indicar la parte del contrato que tenga previsto subcontratar, debiendo al efecto, comunicar por escrito tras la adjudicación , y antes del inicio de la ejecución del contrato, la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad del subcontratista, justificando suficientemente la aptitud de éste para ejecutarla, de conformidad con lo señalado en el artículo 215 de la LCSP.
33. UDALAREN ESKUBIDEAK		**33. DERECHOS DEL AYUNTAMIENTO**
1 Udalari dagokio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak konpontzea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, SPKLan zehaztutako baldintzak eta ondorioak betez.		1 Corresponden al Ayuntamiento las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la LCSP.
2 Horretarako hartzen diren akordioek administrazio-bidea agortuko dute eta berehala bete beharrekoak izango dira.		2 Los acuerdos dictados al efecto pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.
3 Era berean, Zestoako Udalari dagokio itundutako zerbitzu-emakidaren kontrola, alta eta jarraipena egitea. Horretarako, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari kontratu hori burutzeari dagozkion txostenak aurkez ditzala.		3 De la misma forma, corresponde al Ayuntamiento de Zestoa efectuar el control, alta y seguimiento de las prestaciones de los servicios concertados. A tal efecto, el Ayuntamiento podrá en cualquier momento requerir a la empresa adjudicataria la presentación de informes relativos a la ejecución del contrato.
4 Era berean, kontratua era egokian gauzatu dadin, dagokion sailaren bidez Udalak ondorengo funtzioak bere gain hartuko ditu:		4 Asimismo, en orden a la correcta ejecución del contrato, el Ayuntamiento a través del correspondiente área municipal, se reserva las funciones de:
- Kontratua betetzeko eraren jarraipena eta ikuskapena egitea, baita horri buruzko jarraibideak finkatzearena ere. - Egin beharreko lanak bide onetik joan daitezen ziurtatzeko beharrezkoak diren polizia-ahalmenak egikaritzea. - Kontratua betetzeari dagokionean zuzendaritza eta kontroleko ahalmenak egikaritzea.		- Seguimiento y supervisión del modo de ejecución del mismo, así como el establecimiento de directrices con respecto al modo de su ejecución. - Ejercer los poderes de policía necesarios para asegurar la buena marcha de las labores que se tratan. - Ejercer los poderes de dirección y control de la ejecución del contrato.

34. DATU PERTSONALEN BABESA		**34. PROTECCIÓN DE DATOS DE PERSONALES**
1 Kontratuaren kudeaketari buruzko datu pertsonalak babestea: Bi alderdiei jakinarazi zaie kontratu honetako ordezkarien edo haiekin harremanetan jartzeko pertsonen datuak, edo kontratu hau gauzatzeko haien artean emandakoak, bakoitzak datu pertsonalak tratatuko dituela, kontratu-harremana kudeatzeko.		1 Protección de datos de carácter personal relativos a la gestión del contrato: Ambas partes quedan informadas que los datos de representantes o personas de contacto de las mismas, incluidos en el presente contrato o facilitados entre ellas con motivo de su ejecución, serán objeto de tratamiento de datos personales por cada una de ellas, con la finalidad de realizar la gestión de la relación contractual.
2 Informazioa ustekabean eskuratzeko konfidentzialtasun-betebeharra: Esleipendunak ustekabean eskuratzen badu inplikatutako administrazioen informazioa, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duena, informazio horren gaineko konfidentzialtasun osoa gorde beharko du, eta gertatutakoaren berri eman beharko dio kontratazio-organoari.		2 Deber de confidencialidad en el acceso fortuito a información: Si el adjudicatario accediera fortuitamente a información de las administraciones implicadas que no esté relacionada con el objeto del contrato tiene obligación de guardar estricta confidencialidad sobre la misma e informar al órgano de contratación sobre el hecho acontecido.
Esleipendunak modu frogagarrian eman beharko die langileei betebehar horren berri.		El adjudicatario deberá informar fehacientemente a su personal sobre esta obligación.
3 Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.		3 En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, la empresa contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Trigésimo Primera de la Ley de Contratos del Sector Público, en relación con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y su normativa de desarrollo.
4. Enpresa esleipendunak kontratua betetzeko beharrezko gerta daitezkeen izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatuen erabilpena izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzen duen Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta gaiari buruzko gainontzeko araudiak xedatzen dutenari jarraiki gauzatuko du.		4 La utilización por la empresa adjudicataria de datos de carácter personal objeto de tratamiento automatizado que pueda resultar precisa para el cumplimiento del contrato, se efectuará con observancia de lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y demás normativa concordante.

IV. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA		**IV. NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE**
35. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA		**35. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO DEL CONTRATO**
Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.		El contrato que en base a este pliego se realice tendrá carácter administrativo, y se regirá por el presente pliego y el resto de la documentación técnica que lo acompaña. En todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y, en todo lo que no se oponga a la citada Ley, se aplicará lo establecido en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre; en el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público; y en las demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas.
Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.		En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.
36. JURISDIKZIO ESKUDUNA		**36. JURISDICCIÓN COMPETENTE**
Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.		Las cuestiones controvertidas que puedan derivarse del presente contrato serán resueltas por el Órgano de Contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y podrán ser impugnados directamente ante la jurisdicción contencioso-administrativa, sin perjuicio de que, en su caso, proceda la interposición del recurso especial en materia de contratación regulado por los artículos 44 a 60 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, o cualquiera de los regulados en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

ZESTOAKO UDALA

EGINBIDEA: 2023ko ekainaren 27an Alkatetza Dekretu bidez Baldintza Orri hau onartu da.		**DILIGENCIA**: El presente Pliego de Condiciones ha sido aprobado por Decreto de Alcaldia el 27 de junio de 2023